

## Hiri-hondakin Solidoen karakterizazioa

Errenteriako HHSen Prebentzio-plana



2015/03/25

### Edukien aurkibidea

---

1. Sarrera .....	3
2. Errenteriako Hiri-hondakin Solidoen ezaugarritzea .....	5
2.1 Hasierako diagnostia.....	5
2.2 Errenterian bildutako HHSen datu xehatuak .....	6
2.3 Zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	8
Agustinak .....	12
Alaberga .....	13
Beraun .....	14
Erdigunea.....	15
Fanderia.....	16
Gabierrota .....	17
Galtzaraborda.....	18
Gaztaño .....	19
Igantzi .....	20
Iztieta.....	21
Kaputxinoak.....	22
Lartzabal .....	23
Markola .....	24
Pontika.....	25
Zamalbide .....	26
3. Ondorio nagusiak .....	29
4. Eranskinak .....	30
I. Eranskina: Edukiontzia ireki eta aztertze baimena .....	30
II. Eranskina: <i>checlister</i> fitxa .....	32
III. Eranskina: Aztertutako edukiontzien kokapen-planoa .....	35
IV. Eranskina: Auzokako eta udalerriko ezaugarritzea .....	36



## Irudien aurkibidea


---


1. Irudia: Diagnostika osatzen duten lanen eskema .....	6
2. Irudia: Errenteriako Hiri-hondakin Solidoen (HHS) banaketa .....	9
3. Irudia: Gipuzkoako Hondakinen Ezaugarritzea .....	10
4. Irudia: Agustinak auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	14
5. Irudia: Alaberga auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	15
6. Irudia: Beraun auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	16
7. Irudia: Erdiguneko laginketa-puntuen kokapena .....	17
8. Irudia: Fanderia auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	18
9. Irudia: Gabierrota auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	19
10. Irudia: Galtzaraborda auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	20
11. Irudia: Gaztaino auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	21
12. Irudia: Igantzi auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	22
13. Irudia: Iztietia auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	23
14. Irudia: Kaputxinoak auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	24
15. Irudia: Lartzabal auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	25
16. Irudia: Markola auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	26
17. Irudia: Pontika auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	27
18. Irudia: Zamalbide auzoko laginketa-puntuen kokapena .....	28

## Grafikoen aurkibidea


---

1. Grafikoa: Errenteriako biztanle/egun/urteko HHSen datuak .....	7
2. Grafikoa: Errenteriako gaikako bilketaren eboluzioa .....	8
3. Grafikoa: Errenteriako zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	12
4. Grafikoa: Agustinak auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	14
5. Grafikoa: Alaberga auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	15
6. Grafikoa: Beraun auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	16





7. Grafikoa: Erdiguneko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	17
8. Grafikoa: Fanderia auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	18
9. Grafikoa: Gabierrota auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea.....	19
10. Grafikoa: Galtzaraborda auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	20
11. Grafikoa: Gaztaño auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea.....	21
12. Grafikoa: Igantzi auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea.....	22
13. Grafikoa: Iztietta auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	23
14. Grafikoa: Kaputxinoak auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	24
15. Grafikoa: Lartzabal auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea.....	25
16. Grafikoa: Markola auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea.....	26
17. Grafikoa: Pontika auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	27
18. Grafikoa: Zamalbide auzoko zabor-poltsaren ezaugarritzea .....	28







## 1. Sarrera

Prebentzioa hondakinen sorrera ekiditeko neurririk hoberena da. Horrela zehazten du Europako 2008/98/CE Zuzentarauak eta berea garatzen duen 22/2011 Legeak (hondakinak eta lurzoru poluituen ingurukoak) jasotzen duen hondakinen kudeaketarako hierarkiak:

- 1.- Prebentzioa eta hondakinen murrizketa
- 2.- Berrerabilpenerako prestatzea
- 3.- Birziklapena
- 4.- Bestelako balioztapena (adibidez, energetikoa)
- 5.- Ezabatzea (zabortegiak)

Kontsumitzen den edozein materialek edo baliabidek hondakina sortzen du. Gainera, hondakin horrek bilketa, garraio, kudeaketa eta tratamendua baten beharra eskatzen duenez, ez sortzeak hondakin bihurtzea ekiditen du, ingurumen, energia, gizarte eta ekonomia-ikuspuntutik onura ekarriz.

Ildo honetan, hondakinen sorrera murrizteko helburuarekin, Udalak hamaika ekimen burutu ditu, besteak beste:

- 2005. urtean Diputatuen Kontseiluak hondakinak prebenitzeko hartutako erabakia bere egitea, Hondakinak **Prebenitzeko Dekalogoan** jasotako neurriekin eta Hondakinen Prebentzioaren gaineko konpromisoekin batera.
- Udalerrian **etxeko konposta** sustatzea eta **auzo-konpostatze** ekimenak Gaztaño, Fanderia eta Agustinak auzoetan abiaraztea.
- Arrandegi eta harategietako paper eta plastikozko bilgarrien zein poltsen erabilera murrizteko tupperren banaketa.


2006an Udalak tokiko iraunkortasunerako prozesua abiatu zuen **Errenteriako Iraunkortasunerako I. Tokiko Ekintza-plana** onartzearekin batera (egun berrikuspen fasean aurkitzen da Plana). Dokumentu horrek hondakinen esparrua ere jasotzen du.

Era berean, 2009. urtean **Udaleko Ingurumen-estrategia** onartu zen, administrazioak bere burua ingurumen hobekuntzara bideratuz eta, modu honetan, eredugarri izateko hobekuntzak egokitu eta ekimen ezberdinak abian jarritz. Estrategia honetan jasotako jardueretariko batzuk (paper kontsumoaren murrizketa, kontratazio-pleguen ambientalizazioa, ...) garatzen ari dira, Udalari hondakinen sorrera murrizten eta ingurumen kalitaterantz pausuk ematen lagunduz.




Beste hainbat lurraldetan bezala, **hondakinen ekoizpena gutxitu eta sortzen denaren kudeaketa hobetzea aldarrikatzen duten eragileak** ez dira falta Erreterian, batez ere, 2012. Urtean Erreteriarako Ingurumeneko Aholku-kontseiluko (IAK) Hondakinen Taldearen sortu zenetik.

Horrek guztiak **Hiri-hondakinen Prebentzio-plan** baten osaketa burutzerara eraman du Erreteriarako Udaleko Mendi eta Ingurumen Saila, zeinak udalerriko hiri-hondakinen sorrera murrizten laguntzeko neurriak definituko dituen. Horretarako, egungo egoeraren diagnosi bat osatu da, ondorengo arloak barneratzen dituena:



1. Irudia

Dokumentu honek HHSen Prebentzio-planaren osaketarako informaziorik garrantzitsuenetakoa biltzen du: Erreteriarako HHSen karakterizazioa. Ondorengo puntuan jarraitutako metodologia eta azterketaren emaitzak jasotzen dira.




## 2. Erreterriako Hiri-hondakin Solidoen ezaugarritzea

### 2.1 Hasierako diagnosis

Erreterriako egungo egoera **ez dator bat Europako Batasunak ezarritako irizpide eta zuzentarauekin**, ez eta, hurrengo urtetan barneratu behar diren estatu mailako araudiei dagokionean ere; gabezia ugari ditu. Azken urteetan Erreterrian biztanle bakoitzak sortutako hondakin-kopurua murriztu bada ere, eta zentzu horretan, datu hoberenak dituzten udalerrien pare egon, birziklapen-tasak desegokiak dira. Edozein kasutan, Europar Batasunak ezarritako hierarkia kontuan izan beharra dago, zeinetan prebentzioa lehen neurri gisa izendatua dagoen.

**2005 eta 2012 urteen artean, biztanle eta eguneko sortu den hondakin kopurua modu progresiboan murriztuz joan da**, datu horretarako bilatzen den eboluzio-joerarekin bat eginez.

**Biztanle eta eguneko sortutako hiri-hondakinak  
(gaikako bilketakok barne)**




1. Grafikoa: Elkarrekin 21ek egina Sanmarkoko eta Udaleko datuekin

**Eboluzio-joera eta azken urteko balioa nahikoa positibotzat jotzen dira**, Udalsarea 21en baitan Tokiko Agenda 21en 6. Jarraipen-programan parte hartzen duten udalerrien batz bestekoaren (1'3kg/biztanle/egun) eta 15.000 biztanletik gora dituzten udalerrien batz bestekoaren (1'2kg/biztanle/egun) azpitik kokatzen baita.

Birziklatu asmoz gaika biltzen diren hondakinen kopuruak, ordea, **ez dute bilatzen den joera jarraitzen (igoera)**. 2008-2012 bitartean, Erreterriako gaikako hiri-hondakinen bilketak 7'9 puntutan egin zuen beherantz %30era iritsi arte (halere, baliteke hondakin gutxiago sortu izanarekin nolabaiteko lotura izatea).


**Gaikako bilketaren emaitza** hau, Udalsarea 21en baitan Tokiko Agenda 21en 6. Jarraipen-programan parte hartzen duten 15.000 biztanlez gorako udalerrien batz bestekoren (%30)



**parekoa den arren**, ez du goranzko joerarik agertzen eta Ingurumeneko II. Esparru-programan birziklapenaren harira jasotako helburuetatik (gutxienez hiri-hondakin solidoen %35era iristea) urrun kokatzen da. 2011-2014 bitarteko Ingurumeneko III. Esparru-programak ez du birziklatze-kopururik zehazten.

Era berean, **Errenteriako gaikako bilketaren emaitzak Gipuzkoako Hiri-hondakin Kudeaketa-plan Integralaren helburuetara ere ez da iristen**, zeinak 2016. urterako %45eko birziklapen-tasa zuen erdietsi nahi baitzuen. Eta are urrunago geratzen da Plan horren berrikuspenean (2012an burutua) ezarritako helburu berriekin, 2016 urterako %60 birziklapen-tasara iristea ezartzen baitu.

**Gaikako bilketaren eboluzioa %**




**2. Grafiko:** Elkarrekin 21ek egina Sanmarkoko eta Udaleko datuekin


Errenteria Sanmarko Mankomunitatearen parte da eta, honenbestez, gaika jasotzen diren hiri-hondakinak honakoak dira: papera eta kartoia, ontzi arinak, beira, pilak, oihalak, erabilitako olioak, hondakin elektriko eta elektronikoak, egurra eta etxeko hondakin arriskutsuak. Errenterian, hiri-hondakin solidoak kalean aurkitzen diren edukiontzien bitartez jasotzen dira: papera eta kartoia, beira, ontzi arinak, erabilitako olioak, pilak, arropa eta ehunak eta errefusa (azken honek materia organikoa eta gaika bildu ezin denaren arteko nahastea hartzen du bere baitan, nahiz eta zati gaika bildu daitezkeen material asko dagoen tartean *-Errenteriako zabor poltsaren karakterizazioa-*).

## 2.2 Errenteriako HHSen datu banakatuak

HHSen karakterizazioa egiteko, alde batetik, Sanmarko Mankomunitatearen bilketa datuak hartu dira kontuan; bestetik, kolore berde iluneko edukiontzian (errefusarena) aurkitutako zabor poltsen azterketatik.

Ondorengo taulan azken bi urteetako datuak ikus daitezke:






## ERREENTERIAKO HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN (HHS) BANAKETA

	2012	2013
<b>Autokonposta</b>	26.578	26.578
<b>Gaikako udal-bilketa</b>		
Organiko guztia	0	0
Paper/kartoi guztia	1.460.556	1.418.896
Ontzi arin guztia	693.208	712.169
Beira ontzi guztia	905.309	907.345
Lorezaintza hondakinak	475.460	418.480
Pilak	6.529	7.053
Oihalak biltzeko kaleko edukiontziak	156.566	128.641
Sukaldeko olioak	36.627	39.072
Udal zerbitzuek jasotako TEEH	320	1200
Tamaina handikoak eta egurrak	544.200	480.560
<b>GAIKAKO BILKETA GUZTIRA</b>	<b>4.278.775</b>	<b>4.113.416</b>
<b>Gainerakoa / errefusaren udal-bilketa</b>		
Errefusa guztira	9.083.620	8.965.520
Kale-garbigeta guztira	89.960	98.820
<b>GAINERAKOA/ERREFUSA GUZTIRA</b>	<b>9.173.580</b>	<b>9.064.340</b>
<b>Bildutako HIRI-HONDAKINAK GUZTIRA</b>	<b>13.452.355</b>	<b>13.177.756</b>
<b>Kudeatutako HIRI-HONDAKINAK GUZTIRA</b>	<b>13.478.933</b>	<b>13.204.334</b>
<b>Gaikako bilketa udal-bilketa guztiarekiko</b>	<b>31,8%</b>	<b>31,2%</b>
<b>Gaikako bilketa kudeatutako guztiarekiko</b>	<b>31,9%</b>	<b>31,4%</b>

### 2. Irudia (Iturria: Sanmarko Mankomunitatea)

2013. urtean gaikako hondakinen bilketa %31'4koa zen Erreterian, eta gainerako %68'6a zabortegira bidaltzen zen. Hau da, Erreterian sortutako hondakinen bi heren zabortegian amaitzen zuten beraien ibilbidea.


Aipatu beharra dago HHSen bilketa sistemak ez duela zatiki organikoa gaika biltzea baimentzen, hortaz, zabortegira iristen den hondakinak materia organikoa du bere osagaien artan eta berau konpostagarri litzateke. Goiko taulan agertze den biohondakina (26'5 tona) udalerrian burutzen ari diren autokonpostatze ekimenei dagokie.





Errenteriako datuak Lurralde Historikoan 2012an lortutako emaitzen antzerakoak dira. Beheko irudian ikusten den moduan, birziklatzeko gaika banatu ez diren hondakinak %66,2a suposatu zuten Gipuzkoan.

Hurrengo puntuan azaltzen den moduan, errefusaren edukiontzia karakterizazioan lortutako emaitzek irudian agertzen den datuekin alderatuz apur bat ezberdinak diren arren, zatirik handiena biohondakinari dagokiola islatzen dute.




3. Irudia (Iturria: Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa)

Egoera honen aurrean, edukiontzi berdeetan uzten den zabor-poltsaren osaketa nolakoa zen *in situ* ezagutzea interesgarritzat jo zen. Hurrengo puntuan zehaztasunez azaltzen dira egindako laginketaren emaitzak.

### 2.3 Zabor-poltsaren ezaugarritzea

Ezaugarritze edo karakterizazio hau burutzeko, Errenteriako 15 auzoetako hainbat edukiontzietako zabor poltsak aztertzea erabaki zen. Horretarako, auzo bakoitzean errefuserako 3 edukiontzietako laginak hartu ziren.





## AUZO BAKOITZEKO LAGIN-KOPURUA

Agustinak	4
Alaberga	3
Beraun	4
Fanderia	3
Gabierrota	3
Galtzarborda	3
Gaztaño	3
Igantzi	3
Iztietia	3
Kaputxinoak	3
Lartzabal	2
Markola	2
Pontika	3
Zamalbide	3
Erdigunea	3


Gaikako bilketarako edukiontziekiko hurbiltasunak zabor poltsaren edukian eraginik zuen ala ez ikusteko, auzo bakoitzean laginketa ezaugarri ezberdinetako puntuetan egin zen:


- Errefusarentzako edukiontzia soilik zuen isurketa-gunea
- Errefusarentzako edukiontziaz gain, gaikako bilketara edukiontzi gehienak zituen isurketa-gunea
- Aurreko bien tarteko gunea

Laginketa-puntuen hautaketa ausazkoa izan da, Mendi eta Ingurumen Sailak erraztutako edukiontzien kokapen-planoan oinarrituta (ikus III. Eranskina)

Aholkularitza teknikoaren bi teknikari bertaratu ziren behaketa puntuetara, ondorengo materiala beraiekin eramanez:

- Pisua (zabor poltsa bere osotasunean pisatzeko)
- Hondakinen *Checklista*
- Zabor-poltsak irekitzeko guraizeak
- Eskularruak
- Argazki-kamera






- Zabor-poltsak irekitzeko udal-baimena
- Laginketa-gunea berezko garbitasun-baldintzetan uzteko tresnak

Laginketa-puntu bakoitzean zabor-poltsa bat hartu da edukiontzi berdetik eta ondorengo urratsak eman dira:

- Hautatutako edukiontziaren barrualdeari argazkia ateratzea
- Hautatutako edukiontziaren kanpoaldeari argazkia ateratzea
- Zabor-poltsa edukiontzitik hartzea
- Poltsa pisatzea
- Zabor-poltsa zabaltzea
- Zabor-poltsaren barruan aurkitutako hondakinak beren ezaugarrien arabera sailkatu eta antolatzea
- Zabor-poltsaren barruko edukiari argazkia ateratzea
- Hondakin frakzio bakoitzaren ehunekoaren estimazioa egitea
- *Checklista* eta argazkian oinarrituz, hondakin zati bakoitzaren ehunekoa kalkulatzeko


Ondoren jasotzen den grafikoan laginketaren emaitzak ikus daitezke (*checklista* eta puntu bakoitzaren emaitza zehatzak II eta IV eranskinetan daude).

### Zabor-poltsaren ezaugarritzea (2014)



3. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)

Grafikoak erakusten duenez, **zabor poltsa biohondakinez (%40'3) eta ontzi arinez (%38'3) osatua dago, batez ere**. Eranskinean doazen argazkietan argi ikusten da, gainera, organikoak ez diren hondakinak erraz gaika bildu eta birziklatzeko edukiontzietan uzteko modukoak direla. Horregatik, ezjakintasuna organikoak ez diren hondakin horiek zabor poltsan amaitzearen erantzule izatea baztertzen da.







Horrez gain, zabor poltsan **errefus gisa har daitekeen zaborraren kopuru txikia deigarria da, poltsaren %4'1a suposatzen baitu.**


Karakterizazio honetarako lanetan lortutako bestela informazioa ere interesgarria da:

- Laginketa gehienak goizez egin badira ere, zaborrak uzteko ordutegia nahikoa ondo errespetatzen dela baieztatu da (nahiz eta auzo batzuen eta besteen artean alde handia egon).
- Aztertutako 45 poltsetatik, 23etan biohondakinaren bolumena nabarmentzekoa da. 19 poltsetan, berriz, aurkitutako plastiko kopurua deigarria da.
- Zabaldutako 44 edukiontzietatik 30etan errefusaren edukiontzian bota behar ez ziren hondakinak aurkitu dira.
- Aztertutako 44 eremuetatik 25 egoera onean aurkitzen ziren, baina 19 guneetan altzariak, etxetresna elektrikoak, hondakinak, etab. aurkitu dira edukiontzia inguruan.
- Zabaldu diren unean edukiontzien betetze-maila honakoa izan da:


Betetze-maila	0-25%	25-50%	50-75%	75-100%
Edukiontzi kopurua	26	13	2	3

Jarraian auzo bakoitzean aztertutako edukiontzien kokapena eta jasotako emaitza orokorrak jasotzen dira (datu zehatzak IV. Eranskinean aurkitzen dira):






a) Agustinak





Organikoa	Paper/kartoaia	Ontzi arinak	Beira	Oihalak
%37	%13'8	%32'6	%14'8	%1'8

Agustinetako zabor-poltsaren edukia (%)




4. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






b) Alaberga




Organikoa	Paper/kartoia	Ontzi arinak
%61	%10'3	%28'7


Alabergako zabor-poltsaren edukia (%)



5. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)








c) Beraun





Organikoa	Paper/kartoiak	Ontzi arinak	Beira	Bestelakoak
%20'5	%23'5	%52'5	%3'25	%0'25

Beraungo zabor-poltsaren edukia (%)



6. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






d) Erdigunea





Organikoa	Paper/kartoa	Ontzi arinak	Beira	Bestelakoak
%47'3	%7'3	%42	%3	%0'4

Erdiguneko zabor-poltsaren edukia (%)



7. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






e) Fanderia




Organikoa	Paper/kartoa	Ontzi arinak	Oihalak
%49	%7,7	%39,3	%4


Fanderiako zabor-poltsaren edukia (%)



8. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)








f) Gabierrota




9. Irudia: Gabierrota auzoa (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia)


Organikoa	Paper/kartoaia	Ontzi arinak	Oihalak	Bestelakoak
%39'7	%5'7	%20'3	%1	%33'3

Gabierrotako zabor-poltsaren edukia (%)



9. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






g) Galtzaraborda




10. Irudia: Galtzaraborda auzoa (Iturria: Gipuzkoako Foru)

Organikoa	Paper/kartoiak	Ontzi arinak	Beira	Bestelakoak
%50,7	%7,3	%40	%1,3	%0,7


Galtzarabordako zabor-poltsaren edukia (%)



10. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)








h) Gaztaño





11. Irudia: Gaztaño auzoa (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia)

Organikoa	Paper/kartoaia	Ontzi arinak	Beira	Oihalak	Besteak
%35	%17	%42'3	%2'3	%2	%1



11. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






i) Igantzi





Organikoa	Paper/kartoa	Ontzi arinak	Beira	Oihalak	Besteak
%21	%22	%49'3	%5'3	%1'7	%0'7

**Igantzi zabor-poltsaren edukia (%)**



**12. Grafikoa** (Iturria: Elkarrekin 21)






j) Iztieta




13. Irudia: Iztieta auzoa (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia)


Organikoa	Paper/kartoaia	Ontzi arinak	Beira	Oihalak	Besteak
%25	%16	%56	%0'3	%1	%1'7



13. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)








### k) Kaputxinoak





Organikoa	Paper/kartoia	Ontzi arinak	Oihalak	Besteak
%56	%10,7	%28'3	%4'3	%0'7

Kaputxinoetako zabor-poltsaren edukia (%)




14. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






## I) Lartzabal





15. Irudia: Lartzabal auzoa (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia)

Organikoa	Paper/kartoa	Ontzi arinak	Beira	Besteak
%57	%9'5	%32'5	%0'5	%0'5



15. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






m) Markola




Organikoa	Paper/kartoaia	Ontzi arinak	Beira	Oihalak
%61	%8'2	%28'8	%1	%1


Markolako zabor-poltsaren edukia (%)



16. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)








n) Pontika





17. Irudia: Pontika auzoa (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia)

Organikoa	Paper/kartoia	Ontzi arinak	Oihalak	Besteak
%36,7	%15,7	%44	%2	%1,6



17. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)






o) Zabalbide




18. Irudia: Zabalbide auzoa (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia)



Organikoa	Paper/kartoaia	Ontzi arinak	Oihalak	Beira
%47'3	%20	%29'4	%1'3	%2



18. Grafikoa (Iturria: Elkarrekin 21)







### 3. Ondorio nagusiak

- Errenterian, beste zenbait herrietan gertatzen den moduan, **geroz eta hondakin gutxiago sortzen dira biztanleko**, ziurrenik, egungo krisiak eragindako kontsumoaren beherakadarengatik.
- Hondakinen bilketa-tasa Gipuzkoako batz bestekoaren parekoa bada ere, inguruko eta Lurraldeko zenbait udalerrietakoekin alderatuz gero, emaitzak oso baxuak direla ikus daiteke. Hori dela-eta, **bilketa sistema eraginkorrago batera aldatzea eta gaikako bilketa hobetzeko neurri osagarriak ezartzea garrantzitsua izango litzateke.**
- Hondakinak nahastuta jasotzen dituen edukiontzi berdearen karakterizazioak islatzen duenez, isurketa nagusiak **materia organikoa (%40) eta ontzi arinenak dira (%38).**
- Era berean, zabor-poltsen azterketan bertan aurkitutako hondakinen %95a gaika bildu eta birziklatzera bideratzeko frakzioak zirela ikusi da. Hau da, **zabor-poltsen batz besteko errefusaren kopurua %5ekoa dela antzeman da.**

## 4. Eranskinak

### I. Eranskina

(Edukiontzia ireki eta aztertzeo baimena)

## UDAL BAIMENA / PERMISO MUNICIPAL

Errenteriako Hondakinak murrizteko Udal Prebentzio-plan bat idazteko helburuarekin, Errenteriako Udalak Izadi 21 enpresa kontratu du. Plana osatu asmoz enpresak burutuko dituen lanen artean, lehen urrats modura, Errenteriako biztanleek eta hainbat eragilek sortutako hondakinen karakterizazioa egitea dago.

Hori dela-eta, 2013ko azaroa eta abenduan zehar Izadi 21eko teknikariek Errenteriako auzo ezberdinetan, gaika biltzen ez den frakzioa, hau da, hondakinak nahasian jasotzen dituen zenbait edukiontzi zabaldu eta bertan utzitako bizpahiru poltsa irekiko dituzte beren edukia aztertzeo.

Karakterizazio lan hauetan, poltsan aurkitu daitezkeen izaera pertsonaleko datuak (fiskalak, postalak, ...) ez dira kontuan hartuko. Poltsa bakoitzaren edukia soilik hondakinen izaeraren ikuspegitik aztertuko da.


Lan horiek burutzeko, Errenteriako Udalak Izadi 21eko teknikariei baimena ematen die

Con objeto de redactar un Plan municipal para la Prevención de Residuos de Errenteria, el Ayuntamiento ha contratado a la empresa Izadi 21. Entre los primeros trabajos que realizará para la elaboración de dicho plan, la empresa llevará a cabo una caracterización de los residuos generados por los habitantes y otros agentes de Errenteria.

Con ese fin motivo, a lo largo de noviembre y diciembre de 2013, los técnicos de Izadi 21 recorrerán los diferentes barrios de Errenteria, abriendo en cada uno de ellos, varios contenedores para la recogida de residuos en masa (no selectiva), y extraerán tres bolsas para analizar su contenido.

Los datos de carácter personal (fiscales, postales,...) que puedan hallarse durante estos muestreos, no se tomarán en cuenta. Tan solo se analizará la composición de los residuos y la tipología de las bolsas que se analicen.

Para poder desarrollar los trabajos, el Ayuntamiento de Errenteria autoriza a los



2013 azaroa eta abenduan zehar, Errenteriako auzo ezberdinetako hondakinak nahasian jasotzeko ezarrita dauden kaleko edukiontzi berdeak zabaldu eta bertan utzitako hondakin poltsak aztertzeko.

técnicos de Izadi 21 a abrir, a lo largo de noviembre y diciembre, los contenedores verdes urbanos para la recogida en masa de residuos ubicados en los diferentes barrios de Errenteria y analizar las bolsas de residuos depositados en ellos.


Poltsa bakoitzaren azterketa egin ostean, hondakinak edukiontzi berera itzuliko ditu enpresak, inguruak azterketa egin aurreko egoera berean utziaz.

Una vez analizado el contenido, la empresa devolverá los residuos al mismo contenedor, dejando el entorno en el mismo estado previo a la apertura de la bolsa.

Jose Manuel Ferradas


Errenteriako Udaleko Mendi eta Ingurumen Zinegotzia

Concejal de Medioambiente y Montes del Ayto. de Errenteria





**II. Eranskina**  
(Checlisterako fitxa)

<b>ERRENTERIAKO EDUKIONTZIEN KARAKTERIZAZIO-FITXA</b>					
<b>DATU OROKORRAK</b>					
Kokapena:					
Data:					
Ordua:					
<b>EDUKIONTZIAREN KANPOALDEA</b>					
<b>Zaborra dago</b>	Ontziak	Paperak	Kartoiak	Elektratresnak	
	Zabor poltsak	Altzariak	Beira	Arropa	
	Bestelakoak:				
<b>Ez dago zaborrik</b>					
<b>EDUKIONTZIAREN BARRUALDEA</b>					
Betetze-maila	%0-25	%25-50	%50-75	%75-100	100%
<b>Osaketa</b>	Zabor poltsak	Kartoiak	Ontziak	Inausketa hondarrak	Hostoak
	Altzariak	Beira	Egur-kaxak	Papera/Kartoia	
	Bestelakoak:				
<b>POLTSAREN EDUKIA</b>					
<b>Poltsaren pisua:</b>					
				gr.	%
Janari hondarrak					
Elikagai-hondarrak					
Inausketa					
Sukaldeko papera/mukizapiak					
Kortxoak					
Zerrautsa					
Egurra tratatu gabekoa					
Egurra tratatua					



P-K ontziak/bilgarriak		
P-K ez ontzi/bilgarriak		
Pixoihalak		
Konpresak		
Oihalak		
Arropa		
Zapatak		
Beira botilak		
Beira potoak		
Kristala		
Plastikoak	Tapoiak	
	Botilak	
	Bilgarriak	
	Poltsak	
	Poliespana	
	Film	
	Jogurt potoak	
	Bestelakoak	
Metalezko ontziak	Freskagarri latak	
	Janari-latak	
Ontzi nahasiak	Brik motakoak	
	Kafe kapsulak	
	Harategi/arrandegiko papera	
	Okindegiko papera (plastikoduna)	
	Tabako paketeak	
	Bestelakoak	
Altzariak		
Elektrotresnak		
Pilak		
Olioak		
Margoak eta antzerakoak		
Aerosolak		







Aluminio papera		
Ontziak ez diren plastikoak		
Botikak		
Obra hondakinak		
Zeramika		
Bonbillak		
Kableak		
Ontzia ez den poliespana		
Zartaginak		
Bestelakoak:		


**OHARRAK:**

Iturria: Elkarrekin 21







### III. Eranskina (Aztertutako edukiontzien kokapen-planoa)



Zamalbide








## IV. Eranskina (Auzokako eta udalerriko ezaugarritzea)

### AGUSTINAK

Kalea: Agustinen Etorbidea 26  
Inkiera data : 2019/12/23  
Inkiera ordua: 16:50  
Edukiontzai mota: Nahasian biltzeko (berdea)  
Alboko edukiontzaiak: Beira, papera/kartola, ontzi arinak, olio.

Edukiontzaiaren betetze-maila %0-25eko da.  
Edukiontzaiaren barruan zabor politsek eta ontziak daude.  
Edukiontzaiaren ingurua garbi dago.  
Poltzaren edukieraren %20a beira ez da bihondakina.  
Gehiengo ontzi arinak dira.


Organikoa	Ontziak	Paper/karta	Beira	Oihalak
20%	59%	11%	8%	2%



Kalea: Lousada Kalea 43  
Inkiera data : 2019/12/23  
Inkiera ordua: 17:06  
Edukiontzai mota: Nahasian biltzeko (berdea)  
Alboko edukiontzaiak: Bekarra gunean

Edukiontzaiaren betetze-maila %0-25eko da.  
Edukiontzaiaren barruan zabor politsek besterik ez daude.  
Ingurua garbi dago.  
Poltzaren edukieraren %20a beira ez da bihondakina.  
Gehiengo ontzi arinak dira, beira papera/kartola ere modu nabarmenean ageri da.


Organikoa	Plastiko	Paper/ka	Beira	Oihalak
20%	37%	25%	13%	5%



Kalea: Hombres Oñetibia 8  
Inkiera data : 2019/12/23  
Inkiera ordua: 17:18  
Edukiontzai mota: Nahasian biltzeko (berdea)  
Alboko edukiontzaiak: Beira, papera/kartola eta ontzi arinak.

Edukiontzaiaren betetze-maila %25-50eko da.  
Edukiontzaiaren barruan zabor politsek besterik ez daude.  
Ingurua garbi dago.  
Poltzaren edukieraren %91a organikoa da.  
Ontzi arinak eta papera/kartola kopuru txikien agertzen dira.  
Ez da bestelako hondakinik ageri.



Organikoa	Ontziak	Paper/ka
91%	5%	4%



Kalea: Miguel Alduntzin  
Inkiera data : 2019/12/23  
Inkiera ordua: 17:27  
Edukiontzai mota: Nahasian biltzeko (berdea)  
Alboko edukiontzaiak: Bekarra gunean

Edukiontzaiaren betetze-maila %0-25 artean betete dago.  
Edukiontzaiaren barruan zabor politsek besterik ez daude.  
Ingurua garbi dago.  
Poltzaren edukieraren %18a beira ez da bihondakina.  
Beira kopuru oso nabarmenean ageri da.

Organikoa	Paper/ka	Ontzi	Beira
18%	15%	29%	38%





## ALABERGA

Kalea: Alaberga 40  
Irekiera data : 2013/12/18

Irekiera ordua: 11:50

Edukiontzi mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontziak: Beira, papera/kartoi eta ontzi arinak

Edukiontziaren betetze-maila %25-50ekoa da.


Edukiontziaren barrualdean zabor poltsez gain, hostoak, arropaz betetako poltsa bat eta ogiz betetako poltsa bat daude.

Ingurua garbi dago.

Poltsaren edukiaren %48a biohondakina da.

Halere, ontzi arinen kopurua ia maila beretsuan ageri da

Organikoa	Ontziak	Paper/kartoi
48%	42%	10%



Kalea: Alaberga 30  
Irekiera data : 2013/12/18

Irekiera ordua: 11:20

Edukiontzi mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontziak: Beira, papera, plastikoa eta olioia

Edukiontziaren betetze maila %0-25ekoa da.


Edukiontziaren barruan zabor poltsak besterik ez daude.

Ingurua garbia dago.

Poltsaren edukiaren %40a biohondakina da.

Organikoa eta ontzi arinen kantitate berdina dago.

Organikoa	Ontziak	Paper/kartoi
40%	40%	20%



Kalea: Alaberga 28  
Irekiera data : 2013/12/18

Irekiera ordua: 11:37

Edukiontzi mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontziak: Bakarra gunean


Edukiontziaren betetze maila %25-50ekoa da.


Edukiontziaren barruan zabor poltsez gain, kartoiak ere daude.

Inguruan egurrezko altzari bat dago.

Poltsaren edukiaren %95a biohondakina da.

Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi
95%	4%	1%






## BERAUN

Kalea: Beraun Kalea 15-17 (1. poltsa)  
 Irekiera data : 2013/11/27  
 Irekiera ordua: 11:00  
 Edukiontzai mota: Nahasian biltzekoa (berdea)  
 Alboko edukiontzaiak: Papera/kartoiak eta ontzi arinak

Edukiontzia betetze maila %25-50ekoa da.  
 Edukiontzia berruan zabor poltsez gain, egurra eta erratz kirten bat ere daude.  
 Inguruan egurrezko altzarik daude.  
 Poltsaren edukian ez dago materia organikorik.  
 Gehiengoa papera/kartoiak da.


Ontzi arinak	Paper/kartoi	Beira
20%	70%	10%



Kalea: Beraun Kalea 15-17 (2. poltsa)  
 Irekiera data : 2013/11/27  
 Irekiera ordua: 11:10  
 Edukiontzai mota: Nahasian biltzekoa (berdea)  
 Alboko edukiontzaiak: Papera/kartoiak eta ontzi arinak

Edukiontzia betetze maila %25-50ekoa da.  
 Edukiontzia berruan zabor poltsez gain, egurra eta kirten bat daude.  
 Inguruan egurrezko altzarik daude.  
 Poltsaren edukian ez dago materia organikorik.  
 Erdia baino gehiago ontzi arinak dira.


Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Beira
23%	58%	16%	3%



Kalea: Aita Donostia 4-6  
 Irekiera data : 2013/11/27  
 Irekiera ordua: 11:30  
 Edukiontzai mota: Nahasian biltzekoa (berdea)  
 Alboko edukiontzaiak: Bakarra gunean

Edukiontzia betetze maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia berruan, zabor poltsez gain, kartoiak, poliespan kaja bat eta inusketak hondarrak daude.  
 Inguruan garbi dago.  
 Poltsaren edukian %39a materia bihondakina da.  
 Gehiengoa ontzi arinak dira.



Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Bestelakoak
39%	56%	4%	1%




Kalea: Jaizkibel 1-52 (Galtzerbordera irteera)  
 Irekiera data : 2013/11/27  
 Irekiera ordua: 11:45  
 Edukiontzai mota: Nahasian biltzekoa (berdea)  
 Alboko edukiontzaiak: Bakarra gunean

Edukiontzia betetze maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia berruan, zabor poltsez gain kartoiak ere badauke.  
 Ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukian %20a baino ez da bihondakina.  
 Dagoen ontzi arinen kopurua oso altua da

Organikoa	Ontzi arinak	Paper-kartoi
20%	76%	4%








## FANDERIA

**Kalea:** Vicente cobreros 38  
**Irekiera data:** 2013/12/05  
**Irekiera ordua:** 12:20  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Beira, ontzi arinak eta papera/kartoiak.

Edukiontzia betetze maila %0-25koa da.  
 Edukiontzia barruan zabor poltsak besterik ez daude.  
 Ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %45a materia organikoari dagokio.  
 Hala ere, ontzi arinak kopuru pertsuan agertzen dira.


Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Oihalak
45%	41%	4%	10%



**Kalea:** Fanderia pasealekua 25  
**Irekiera data:** 2013/12/05  
**Irekiera ordua:** 12:40  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarra gunean

Edukiontzia betetze maila %0-25koa da.  
 Edukiontzia barruan zabor poltsak besterik ez daude.  
 Inguruan egur ohol batzuk zeuden.  
 Poltsaren edukiaren %24a baino ez da bihondakina.  
 Ontzi arinen kopurua oso altua da.


Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi
24%	60%	16%



**Kalea:** Dario Regoyos 2  
**Irekiera data:** 2013/12/05  
**Irekiera ordua:** 12:55  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Beira, papera/kartoiak, ontzi arinak, oihalak

Edukiontzia betetze maila %0-25koa da.  
 Edukiontzia barrualdean, zabor poltsez gain, plastikoa eta zapata pare bat daude.  
 Ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %78a bihondakina da.  
 Ontzi arinak, gainerako beste hondakinekin alderatuz, nahikoa ugaria da.

Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Oihalak
78%	17%	3%	2%



## GABIERROTA

**Kalea:** Nafarroa Hiribidea 17

**Irekiera data:** 2013/12/05

**Irekiera ordua:** 13:10

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Bakarra gunean

Edukiontziaren betetze-maila %0-25koa da.


Edukiontziaren barruan zabor poltsez gain, kartoi kajak, inausketa hondarrak, poliespana eta hostoak daude.

Ingurua garbi dago.

Poltsaren edukiaren %48a materia organikoa da.

Halere, ontziarinen kopurua biohondakinaren parekoa da.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi
48%	41%	11%



**Kalea:** Evaristo Bozas Plaza

**Irekiera data:** 2013/12/05

**Irekiera ordua:** 13:25

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Bakarra gunean

Edukiontziaren betetze-maila %25-50koa da.


Edukiontziaren barruan zabor poltsak besterik ez zeuden.

Ingurua garbi dago.

Poltsaren edukiaren %100a helduen pardelak dira. Izan ere, edukiontzi zahar egoitza baten atzealdean kokatua dago.

Inguruan dagoen edukiontzi bakarra da.

Pardelak
100%



**Kalea:** Salk eta Sabin 6

**Irekiera data:** 2013/12/05

**Irekiera ordua:** 13:30

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Papera/kartoiak, ontziarinak, beira eta olioak

Edukiontziaren betetze-maila %0-25koa da.


Edukiontziaren barruan, zabor poltsez gain, oihalak eta hostoak daude.

Ingurua garbi dago.

Poltsaren edukiaren %71a biohondakina da.

Hurrengo hondakin nabarmenena ontzi arinak dira.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi	Oihalak
71%	20%	6%	3%




## GALTZARABORDA

Kalea: Urdaburu 3, 5  
 Irekiera data: 2013/11/27  
 Irekiera ordua: 12:10  
 Edukiontzi mota: Nahasian biltzekoa (berdea)  
 Alboko edukiontziak: Bakarra gunean

Edukiontziaren betetze maila %75-100ekoa da.  
 Edukiontziaren barruan, zabor poltsez gain, konponente elektrikoak, papera, telebista bat eta hostoak daude.  
 Edukiontziaren ingurua garbi zegoen.  
 Poltsaren edukiaren %74a biohondakina da.  
 Beste bi frakzioak ontzi arinak eta papera/kartoiak maila beretsuan agertzen dira.


Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi
74%	15%	11%



Kalea: Parkea Kalea 37  
 Irekiera data: 2013/11/27  
 Irekiera ordua: 12:40  
 Edukiontzi mota: Nahasian biltzekoa (berdea)  
 Alboko edukiontziak: Beira, papera/kartoiak, ontzi arinak eta olioak.

Edukiontziaren betetze maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontziaren barruan, zabor poltsez gain, arropak eta maleta bat daude.  
 Edukiontziaren ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %23a baino ez da materia organikoa.  
 Ontzi arinak kopuru altuan agertzen dira.


Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Beira
23%	65%	8%	4%




Kalea: Aiako Harria 14  
 Irekiera data: 2013/11/27  
 Irekiera ordua: 12:55  
 Edukiontzi mota: Nahasian biltzekoa (berdea)  
 Alboko edukiontziak: Beira, Ontzi arinak eta papera/kartoiak

Edukiontziaren betetze maila %25-50ekoa da.  
 Edukiontziaren barruan, zabor poltsez gain, maleta bat aurkitu da.  
 Inguruan egurrezko ohol bat eta etxetresna elektriko bat topatu dira.  
 Poltsaren edukiaren %55a biohondakinak osatzen du.  
 Halere, ontzi arinak ere oso ugariak dira.

Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Bestelakoak
55%	40%	3%	2%








## GAZTAÑO

**Kalea:** Birziklapen gunea  
**Irekiera data:** 2013/12/10  
**Irekiera ordua:** 12:20  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Ontzi arinak, papera/kartoi eta olioa

Edukiontzia betetze-maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, zapatak ere aurkitu dira.  
 Edukiontzia inguruan altzari zaharrak daude pilatuta.  
 Poltsaren edukiaren %70a materia organikoz osatua dago.  
 Gainerako frakzioetatik ontzi arinak argi nabarmentzen dira.


Organikoa	Ontzi	Paper/kart	Bestelako
70%	23%	6%	1%



**Kalea:** Gaztaño Kalea, 10  
**Irekiera data:** 2013/12/10  
**Irekiera ordua:** 13:00  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Papera/kartoi eta ontzi arinak

Edukiontzia betetze-maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, hostoak ere aurkitu dira.  
 Edukiontzia inguruan garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %20a baino ez da bihondakina.  
 Gehienetaz ez bezala, zatiki nagusia papera/kartoi da, ontzi arinen aurretik.  
 Kopuru txikian bada ere, beira agertzen da.



Organikoa	Ontzi	Paper/kart	Beira	Oihalak	Bestelako
20%	27%	41%	3%	6%	3%




**Kalea:** Vila Valencia  
**Irekiera data:** 2013/12/10  
**Irekiera ordua:** 12:40  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarra gunean

Edukiontzia betetze-maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia barruan zabor poltsak besterik ez dira aurkitu.  
 Edukiontzia inguruan garbi dago.  
 Poltsaren edukian bihondakinak %15a baino ez du osatzen.  
 Gehienago ontzi arinak dira, modu nabarmenean.  
 Kopuru txikian bada ere, beira agertzen da.

Organikoa	Ontzi	Paper/kart	Beira
15%	77%	4%	4%






## IGANTZI

**Kalea:** Igantzi kalea, 31-33  
**Irekiera data:** 2013/12/18  
**Irekiera ordua:** 12:15  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarra gunean

Edukiontzia-aren betetze-maila %25-50koa da.  
 Edukiontzia-aren barruan, zabor poltsez gain, hostoak ere aurkitu dira.  
 Inguruan egur ohol bat topatu da.  
 Poltsaren edukiaren %20a baino ez da materia organikoa.  
 Erdia baino gehiago ontzi arinak dira.


Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi	Beira	Oihalak	Bestelakoa
20%	55%	8%	10%	5%	2%



**Kalea:** Igantzi kalea, 4  
**Irekiera data:** 2013/12/18  
**Irekiera ordua:** 12:25  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarra gunean

Edukiontzia-aren %100a kartoiez, plastiko bilgarri eta egurzatziz bete aurkitu da.  
 Edukiontzia-aren kanpoaldean etxetresna elektrikoak eta kartoia topatu dira.



Paper/kartoi	Ontzi
50%	50%



**Kalea:** Igantzi kalea, 3  
**Irekiera data:** 2013/12/18  
**Irekiera ordua:** 12:30  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarra gunean

Edukiontzia-aren betetze-maila %0-25koa da.  
 Edukiontzia-aren barruan zabor poltsak baino ez dira aurkitu.  
 Ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %43a bihondakinez osatua dago.  
 Ontzi arinak ere oso nabarmena da, organikoaren pareko.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi	Beira
43%	43%	8%	6%



## IZTIETA

Kalea: Amasa kalea

Irekiera data: 2013/12/16

Irekiera ordua: 13:00

Edukiontzia mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontzia: Beira, papera/kartoa, ontzi arinak eta oihalak


Edukiontzia betetze-maila %25-50koa da.

Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, inausketa hondarrak daude. Inguruan zabor poltsak, altzari zaharrak, koltxoiak, egurrezko oholak etab. aurkitu dira.

Poltsetan edukia %34 baino ez da materia organikoa.

Gehiengoa ontzi arinak badira ere, papera/kartoa ere kopuru altuan ageri da.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi	Oihalak	Bestelako
34%	39%	22%	3%	2%



Kalea: Iztieta Pasealekua (Astigarraga kale-amaieran)

Irekiera data: 2013/12/16

Irekiera ordua: 12:38

Edukiontzia mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontzia: Bakarra gunean


Edukiontzia betetze maila %0-25koa da.

Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, papera eta kartola aurkitu dira. Edukiontzia ingurua garbi dago.

Materia organikoa oso kopuru txikian agertzen da, solik edukia %11a izanik.

Ontzi arinak kopuru altuan agertzen dira, edukia erdia baino gehiago suposatuz.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi	Beira	Bestelako
11%	60%	26%	1%	2%



Kalea: Pasaia kalea eta Oiarzun kalearen artean

Irekiera data: 2013/12/16

Irekiera ordua: 12:35

Edukiontzia mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontzia: Papera/kartoa, beira eta ontzi arinak


Edukiontzia betetze-maila %0-25koa da.

Edukiontzia barruan zabor poltsak besterik ez dira aurkitu. Puntu honetako nahastean biltzeko edukiontzien barrualdean zabor ugari topatu da poltsetan sartu gabe (zuzenean botata). Inguruan zabor poltsak daude.

Poltsetan edukia %30a baino ez da bihondakina.

Beste zatikia osoki ontzi arinak dira ia, oso kopuru altuan (2/3 baino gehiago) Edukiontzia urdinaren barruan brik ugari aurkitu dira.

Organikoa	Ontzi	Bestelakoak
30%	69%	1%





## KAPUTXINOAK

Kalea: Esnabide Sarrera

Irekiera data: 2013/11/27

Irekiera ordua: 13:25

Edukiontzia mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontzia: Papera/kartoiak, ontzi arinak, beira eta olioak

Edukiontzia betetze-maila %25-50koa da.


Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, egurra, hostoak eta pintura pota bataurkitu dira.

Ingurua garbi dago.

Poltsaren edukiaren %64a bihondakinez osatua dago.

Agertzen den gainerako ia hondakin gehienak ontzi arinak dira.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi
64%	30%	6%



Kalea: Galtzaraborda 101

Irekiera data: 2013/11/27

Irekiera ordua: 13:40

Edukiontzia mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontzia: Bakarra gunean

Edukiontzia betetze-maila %0-25koa da.


Edukiontzia barruan zabor poltsak baino ez dira aurkitu.

Inguruan txori kaiola bat topatu da.

Poltsaren edukiaren %34a baino ez da materia organikoa da.

Ontzi arinak eta papera/kartoiak kopuru pertsuan agertzen dira, bakoitza poltsaren 1/4 izanik.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi	Oihalak	Bestelakoak
34%	29%	22%	13%	2%



Kalea: Sorgintxulo 1-3

Irekiera data: 2013/11/27

Irekiera ordua: 14:00

Edukiontzia mota: Nahasian biltzekoa (berdea)

Alboko edukiontzia: Papera/kartoiak, beira eta ontzi arinak

Edukiontzia betetze-maila %50-75koa da.


Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, kartoiak, plastikoak eta egurrezko kaxak aurkitu dira.


Ingurua garbi dago.

Poltsaren edukiaren %70a bihondakina da.

Gainerako hondakin zatikia ontzi arinez osatua dago batik bat.

Organikoa	Ontzi	Paper/kartoi
70%	26%	4%






## LARZABAL

**Kalea:** Larzabal 15  
**Irekiera data:** 2013/12/04  
**Irekiera ordua:** 13:40  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontziak:** Beira, papera/kartoia eta ontzi arinak

Edukiontzia betetze-maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, egur zatiak eta zerrautsa aurkitu dira.  
 Inguruan arropa, egurra, koltxoi bat, plastikozko egitura bat eta bi pintura potu topatu dira.  
 Poltsaren edukiaren %64a biohondakina da.  
 Gainerako hondakinak ontzi arinak eta papera/kartoia dira, maila beretsuan banatuta



Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Bestelakoak
64%	18%	17%	1%




**Kalea:** Larzabal 9  
**Irekiera data:** 2013/12/04  
**Irekiera ordua:** 13:55  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontziak:** Beira, ontzi arinak, papera/kartoia eta olioia

Edukiontzia betetze-maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, egunkariak ere aurkitu dira.  
 Inguruan kartoiak, poliespana eta plastiko ez bilgarriak topatu dira.  
 Poltsaren edukiaren %50a biohondakinez osatua dago.  
 Hala ere, ontzi arinak oso ugariak dira (ja edukiaren erdia).

Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Beira
50%	47%	2%	1%







## MARKOLA

**Kalea:** Markola 8

**Irekiera data:** 2013/12/23

**Irekiera ordua:** 16:20

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Ontzi arinak, papera/kartoi eta beira

Edukiontziaren betetze-maila %0-25ekoa da.


Edukiontziaren barruan zabor poltsak besterik ez dira aurkitu.

Inguruan ontziak eta kartoiak zeuden.

Poltsaren edukiaren %66a materia organikoak osatzen du.

Ontzi arinak bigarren lekuan ageri da.

Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi
66%	22%	12%



**Kalea:** Markola Etorbidea 39

**Irekiera data:** 2013/12/23

**Irekiera ordua:** 16:35

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Beira, papera eta ontzi arinak

Edukiontziaren betetze-maila %75-100ekoa da.



Edukiontziaren barruan, zabor poltsez gain, papera, pintura pota bat eta arropa zaharrez betetako poltsa bat aurkitu dira.

Ingurua garbi dago.

Poltsaren edukiaren %56a biohondakinez osatua dago.

Ontzi arinak ere ugari dira, poltsaren 1/3a osatuz.

Organikoa	Paper/kartoi	Oihalak	Beira	Ontzi arinak
56%	4,5%	2%	2%	35,5%



## PONTIKA

**Kalea:** Arramendi pasealekua, 13

**Irekiera data:** 2013/12/18

**Irekiera ordua:** 13:15

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Beira, papera/kartoia eta ontzi arinak

Edukiontziaren betetze-maila %0-25ekoa da.


Edukiontziaren barruan zabor poltsak besterik ez dira aurkitu.

Inguruan kartoi eta etxetresna elektrikoak topatu dira, baita maskota baten etzatokia (ohea) ere.

Poltsaren edukiaren %47a bihondakinez osatua dago.

Gehiengoa (erdia pasatxo), ordea, ontzi arinak hondakinek osatzen dute.

Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi
47%	52%	1%



**Kalea:** Pontika Kalea, 2

**Irekiera data:** 2013/12/18

**Irekiera ordua:** 13:05

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Beira, papera/kartoia eta ontzi arinak

Edukiontziaren betetze-maila %0-25ekoa da.


Edukiontziaren barruan, zabor poltsez gain, ontziak aurkitu dira.

Inguruan kartoiak eta altzari zaharrak zeuden.

Oso materia organiko gutxi aurkitu da poltsan, soilik %6a.

Ontzi arinak hondakin nagusia izan arren, papera/kartoia ugari agertzen da.

Organikoa	Ontzi arinak	Paper/kartoi	Oihalak
6%	58%	35%	1%



**Kalea:** Morrongilleta 13

**Irekiera data:** 2013/12/18

**Irekiera ordua:** 12:52

**Edukiontzi mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)

**Alboko edukiontziak:** Beira, ontzi arinak, papera/kartoi eta olioak


Edukiontziaren betetze-maila %25-50ekoa da.


Edukiontziaren barruan, zabor poltsez gain, kartoiak, paperak, inausketa hondarrak eta hostoak aurkitu dira.

Poltsaren edukiaren %57a bihondakinez osatua dago.

Ontzi arinak, papera/kartoia, oihalak eta bestelako hondakinek osatzen dute poltsaren gainerako zatia.

Organikoa	Paper/karto	Oihalak	Ontzi arinak	Bestelakoak
57%	11%	5%	22%	5%






## ZAMALBIDE

**Kalea:** Arramendiko biribilgunea  
**Irekiera data:** 2013/12/10  
**Irekiera ordua:** 14:00  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Beira, papera/kartoi eta ontzi arinak.

Edukiontzia betetze-maila %25-50ekoa da.  
 Edukiontzia barruan zabor poltsez gain, kartoiak eta hostoak aurkitu dira.  
 Ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %21a baino ez da bihondakina.  
 Zabor poltsaren erdia ontzi arinek osatzen dute.


Organikoa	Ontzi	Paper/kart	Oihalak
21%	48%	29%	2%



**Kalea:** Zamalbideko eliza  
**Irekiera data:** 2013/12/10  
**Irekiera ordua:** 13:45  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Beira, ontzi arinak eta papera/kartoi

Edukiontzia betetze-maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia barruan zabor poltsak besterik ez dira aurkitu.  
 Inguruan zabor poltsak, plastikoak, kartoiak eta beira-hondakinak topatu dira.  
 Poltsaren edukiaren %65a materia organikoz osatua dago.  
 Papera/kartoi eta ontzi arinak kopuru paretuan agertzen dira, nahiz eta papera apur bat nabarmenagoa izan.


Organikoa	Ontzi	Paper/kart
65%	15%	20%



**Kalea:** Zamalbideko eskola zaharrak  
**Irekiera data:** 2013/12/10  
**Irekiera ordua:** 13:30  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarra gunean

Edukiontzia betetze-maila %0-25ekoa da.  
 Edukiontzia barruan zabor poltsak besterik ez dira aurkitu.  
 Ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %56a bihondakinez osatua dago.  
 Hurrengo zatiki nagusia ontzi arinek osatua bada ere, beiraren presentzia aipagarria da.

Organikoa	Ontzi	Paper/kart	Beira	Oihalak
56%	25%	11%	6%	2%






## ERDIGUNEA

**Kalea:** Miguel Alduntzin Kalea, nº2  
**Irekiera data:** 2013/12/16  
**Irekiera ordua:** 12:00  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarra gunean

Edukiontzia betetze-maila %25-50ekoa da.  
 Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, inausketa hondarrak aurkitu dira.  
 Ingurua garbi dago.  
 Poltsaren edukiaren %40a materia organikoz osatua dago.  
 Halere, ontzi arinak poltsaren edukiaren erdia suposatzen dute.


Organikoa	Ontzi	Paper/kart	Beira	Bestelako
40%	51%	6%	2%	1%



**Kalea:** Andoni Korta Kalea  
**Irekiera data:** 2013/12/16  
**Irekiera ordua:** 11:30  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Beira, papera/kartoiak, ontzi arinak eta oihalak

Edukiontzia betetze-maila %25-50ekoa da.  
 Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, ontziak, inausketa hondarrak, hostoak, altzariak, beira, egur kaxak, paperak eta kartoiak aurkitu dira.  
 Inguruan altzari zaharren pilatxo bat zegoen.  
 Poltsaren edukiaren %40a biohondakinez osatua dago.  
 Gehiengoa ontzi arinak dira, kopuru altuan gainera.


Organikoa	Ontzi-arinak	Paper/kartoi	Beira
40%	57%	2%	1%




**Kalea:** Biteri kalea, 45  
**Irekiera data:** 2013/12/16  
**Irekiera ordua:** 11:00  
**Edukiontzia mota:** Nahasian biltzekoa (berdea)  
**Alboko edukiontzia:** Bakarrek gunean

Edukiontzia betetze-maila %50-75ekoa da.  
 Edukiontzia barruan, zabor poltsez gain, egurzatiak zeuden.  
 Ingurua garbi zegoen.  
 Poltsaren edukiaren %62a materia organikoz osatua dago.  
 Halere, gainerako zatikiek, non ontzi arinak nagusi diren, ia %40 suposatzen dute.

Organikoa	Ontzi	Paper/kart	Beira
62%	18%	14%	6%





## ERREENTERIA

Edukiontzien analisi gehienak goizez egin dira eta, esan daiteke, orokorrean, zaborra ateratzeko ordua errespetatzen dela, nahiz eta baieztapen hau ezin den auzo guztietara orokortu.

Aztertutako 45 zabor-poltsen artean, 23etan hondakin organikoak dira nagusi. Beste 19etan plastikoa izan da zabor-poltsaren eduki nagusia.

Aztertutako 44 edukiontzien artean 30etan, zabor poltsez gain, edukiontzinari ez zegozkion bestelako hondakinak agertu dira.

Aztertutako 44 guneetatik 25 txukun aurkitu dira. Gainerako 20etan hondakinak, altzariak elektrotresnak, etab. aurkitu dira kanpoaldean.

Edukiontzien betetze-maila			
%0-25	%25-50	%50-75	%75-100
26	13	2	3

**Zabor-poltsaren ezaugarritzea (2014)**

